



EBAZPENA, 2019ko uztailaren 22koa, Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko zuzendariarena; Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak argitara ematen dira, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek baloratutako merituek barematu ostean

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretarako deia egin zen. Agindu horren 8.7 oinarriak zehazten duenarekin bat etorritik, argitara eman ziren zuzendari beraren 2019ko uztailaren 9ko Ebazpenaren bitartez, lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin-behineko puntuazioak, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek baloratutako merituei dagokienez.

Aipatutako behin-behineko puntuazio horien aurka aurkeztu diren erreklamazioak ebatzi ondoren, bai eta ikusi diren akatsak ofizios zuzendu ondoren, egin beharreko aldaketak egin dira.

Horrenbestez,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak argitaratzea, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren Unitateek barematutako merituei dagozkionak (I. eranskinen I eta II atalak eta III.3 eta III.4 azpiatalak eta II. eranskinen I atala eta III.1 eta III.2.4 azpiatalak), Hezkuntza sailburuak 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduren barruan.

Bigarrena.- Espezialitate guztietako izangaiek merezimendu horiengatik lortutako puntuazioen behin-behineko zerrenda ondorengo tokian emango da argitara:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu behar dira):
“2019ko EPE. Maisu-maistrak, kontserbatorioak eta HEO” → “Hautaketa-prozesuaren jarraipena” → kidegoa eta espezialitatea adierazi behar dira
→ “Emaitzak” → “Lehiaketa-aldia – Partziala”.

Hirugarrena.- Behin betiko puntuazioaren aurka ez dago errekurtsioa jartzerik; interesa duten izangaiek gorako errekurtsioa jarri ahal izango dute izangai hautatuen behin betiko zerrendaren aurka (deialdiaren 10.3.2 oinarrian aurreikusitakoa).

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 22a

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

JON AGIRRE HUERGA